

PARTAIDETZA LAN PROZESUA

Desgaitasun egoeran dauden pertsonak:

Nola aipatu behar ditugu?

UDAK GAIAK BILDUMA



Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala

Diseinua eta maketazioa: Erakunde Komunikaziorako Atala

Ilustrazioak: Mercedes Corretge

Itzulpena: Bizkaiko Urtxintxa Eskola

Inprimatzailea: Gráficas Irudi

L. G.:

2019ko apirila

Dokumentu hau edozein pertsonarentzat irigarria izan dadin horrela aurkeztu da:

1. Irakurketa errazeko bertsioa.
2. Jatorrizko bertsioa.

Horrela, arrazoi fisiko, psikiko edo sozialengatik, irakurtzeko zailtasunak dituen edozein pertsonari kultura edo informazioa irigarri egitea da asmoa..

PARTAIDETZA LAN PROZESUA

Desgaitasun egoeran dauden pertsonak:

Nola aipatu behar ditugu?



Logotipo honek identifikatzen ditu IFLAk (International Federation of Library Associations and Institutions) eta Inclusion Europe-k irakurtzeko zailtasunak dituzten pertsoneri zuzendutako materialentzat ezarritako nazioarteko gidalerroak jarraitzen dituzten materialak. Agiri hau Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza-k berrikusi du, eta berak abalitzen du.

Aurkibidea

Zer da dokumentu hau?	6
Nola egin da?	6
Nortzuk parte hartu dute?	7

Hausnarketa eta aldarrikapenak: Zer pentsatzen dute? Zer eskatzen da?	9
Desgaitasuna eta aniztasun funtzionala	10
Hitzak: nola erabiltzen dira?	12
■ Erabili behar ez diren hitzak	
■ Komunikabide eta administrazioetan erabilera zuzena ez duten hitzak	

Desgaitasuna eta bere kontzeptuak: zer esan nahi dute eta nola erabili behar ditugu.....	14
---	----

Zer da dokumentu hau?

Dokumentu hau lan bateratuaren emaitza da. Bertan elkarte eta pertsona ezberdinek parte hartu dute. 2018-2020ko Bizikidetza eta Aniztasun Planaren parte da, Vitoria-Gasteizko Udaleko Bizikidetza eta Aniztasun Zerbitzuak bultzatuta.

Bizikidetza eta Aniztasun Elkarguneak Aniztasun Funtzionaleko Lan-mahaira eraman zuen, desgaitasun egoeran dauden pertsonen eta gainerakoen erlazioan erabili behar den hizkuntzari buruz gizartea sentsibilizatzeko beharra.

2018ko urrian lan prozesu hau hasi da:

- kolaboratiboa da
- 3 hilabete dirau
- partekatzen, eztabaidatzen eta adosten du.

Azkeneko dokumentua deitzen da

“Desgaitasun egoeran dauden pertsonen erreferentzia egiten dien terminologia”.

Hau dokumentu horren **irakurketa errazera egokitutako bertsioa** da, pertsona guztiei honen irakurketa eta ulermena errazteko.

Nola egin da dokumentu hau?

Dokumentu hau modu parte hartzailean egin da. Hiri batean partaidetza prozesuek balio dute auzotarrak ingurunea eta honen baldintzak eraikitzen elkarbizitza lortzeko errespetutik eta berdintasunetik.



Nortzuk parte hartu dute?



Vitoria-Gasteizko Udala
Bizikidetza eta Aniztasun
Zerbitzua




Bizikidetza eta Aniztasun Elkargunea



Kulturartekotasuneko
 mahaia

**Aniztasun Funtzionalaren
 mahaia**



Bakea eta Giza Eskubideen Mahaia

- Persona adituen lan taldea

- Iritzi eta ezaguerak ematen ditu, eztabaidatzen du, ziriBORROAK orrazten ditu eta azkeneko dokumentua



14

Elkarte

APDEMA

ARABAKO GORRAK

ASAFES

ASPASOR

ATECE ARABA

TEARABA ELKARTEA

EGINAREN EGINEZ

FEVAPAS

GAZTEDI RUGBY TALDEA

IZANEZ ELKARTEA

MONTES SOLIDARIOS


ONCE

RETINOSIS ARABA BEGISARE

TALUR



Kronograma



Hausnarketa eta aldarrikapenak Zer pentsatzen dute? Zer eskatzen da?



Aniztasun funtzionalaren Mahaiko elkarteek esaten dute:

“Lehenik eta behin, lehenengo **personak gara**.

Gure bizitzaren une batzuetan

gainerakoengandik ndik bereiz gaitezke zerbaitengatik:
itsua naiz, gorra naiz...”

Horrela egoera hau ikusgai egiten da eta **aldaketako
persona politikoak** dira

Aldaketako pertsona

politikoak: gizartea
modu eraginkorrean
eraldatzen duten
personatzat antzematen
direnak.

Ez dituzte **estereotipoak** onartzen:

- Ezberdintasunak ez du esanahi pertsonak ez duela ahalmenik.
- Ezberdintasunak ez du esanahi ahalmen gutxiago izatea.
- Desgaitasunari buruzko sinesmen eta **aurreiritziek** alderatu eta diskriminatzen dute.
- Identifikatu behar ez izatea eta une eta leku bakoitzean azalpenak eman behar ez izatea.

Aurreiritzi: erbaiti edo norbaiti buruzko ideia edo iritzi negatiboa ezagutu baino lehen eta arrazoi zehatzik gabe.

Estereotipo: gizarteak duen zerbaiten edo norbaiten ideia, esatera edo irudia da. Aldaketarik gabe mantentzen da eta denboran zehar errepikatzen da..

Aldarrikatzen dute:

- Pertsona bakoitzak bere berezko ezaugarriak garatzen joatea.
- Begirada zabaltzea; desgaitasuna sorta zabala da.
- Diskurtso politikoa aldatzea eta ekintzara pasatzea.
- Gizartean azpiegiturekin eta tresnekin benetako **inklusio** baterantz aurrera egitea da.

Inklusio: pertsona batek edozein herritarren eskubide berberetara gozatu behar duen egoera eta gizartean parte hartzen du barne dagoelako.

Desgaitasuna eta aniztasun funtzionala

Hausnarketak galdetzerantz eramanez:

“Zein terminok adierazten gaitu eta hobeto sentiarazten gaitu?”

Aniztasunak gizaki guztiak defini ditzake,

hori dela eta aniztasun funtzionala kontzeptu bat bezala ikus daiteke:

- oso orokorra eta urruna
- “politikoki zuzena” dena mugatua
- pertsona guztiak egoera bakarrean ikusarazten dituen
- laguntza behar zehatzak ikusgai egiten ez dituen.

Desgaitasun hitza:

- aniztasun funtzionalarena baino gertuago sentitzen da
- ez da identifikatzen ahalmen gutxiagoarekin
- ez da baldintza bat, desgaitasun egoerak sortzea baizik, gizarteak eta inguruneak sortzen dituzten zailtasunetatik, hauek ikuspuntu bakarretik sortuta daudelako.

“Desgaitasun egoeran dauden pertsonak”

- pertsona definitzen du nortasun berezkoa eta ezberdinarekin
- **kolektiboa** identifikatzen du
- baldintzak eta aldaketak (gizartekoak, mentalak, azpiegiturretan...) egon daitezela aldarrikatzen ditu egoera horiek gertatzen jarrai ez dezaten
- pertsonaren beste ezaugarri batzuekin batera daiteke (adina, sexua...) uneko aldarrikapen beharraren arabera.

“Ez badago igogailurik, baliabide bisualik, entzumenezkorik edo ingurunea ez bada irisgarria kognitiboki... desgaitasun egoerak sortuko ditugu, pertsona guztiak barne ez daudenak”

kolektibo: gauzak edo ezaugarriak elkarbanatzen



Hitzak: nola erabiltzen dira?

Desgaitasunari buruz hitz egiteko hitz batzuk edo besteak erabiltzen direnean, hurrengoak egin behar dugu:

- gure buruari galdetu: zergatik hitz hori?, nola sentitzen du pertsona bakoitzak? eta zer esan nahi dugu?
- erabili aniztasuna eta gizataldearen beharrak errespetatzen eta identifikatzen dituen hizkuntza
- koherenteak izan esan eta egiten dugunaren artean
- ezberdindu bizitza formalean (komunikabide, politika, lanean...) eta informalean (lagunak, konfiantzazko tokietan...) erabiltzen ditugun hitzen artean.



Erabili behar ez diren hitzak	
Gizataldea izendatzeko edo adjetibo bezala erabiltzen direnak pertsonen ezaugarri negatiboak definitzeko	Adibidez: autista (norbait oso despistatua denean edo esaten diotenari kasu egiten ez duena), desgaitua, atzeratua, gaixoa, ezindua, adimen urrikoa...
Gaur esateko modu zientifikoagoa dutenak baina berdin sentitzen direnak	Adibidez: idiozia, subnormala, mongoloidea, borderline...
Ikuspuntu paternalista, diskriminatzen edo desgaitzen dutenak	Adibidez: gaixoa, minusbaliatua, gaizki dagoen haurra, eroa...

Komunikabide eta administrazioetan erabilera zuzena ez duten hitzak	
Modu orokorrean erabiltzen direnak eta desgaitasun egoeran dauden pertsonak adierazten ez dituztenak	Adibidez: baliaezintasuna, kaltetua, elbarria...
Sinonimo bezala erabiltzen direnak eta definitzen duenari argitasunikematen ez diona	Adibidez: desgaitua, minusbaliatua... berdin erabiltzen dena mintzaldietan
Administrazioan egoera zehatzak definitzen dituztenak pertsonaren lanarekiko erlazioan gaitasunari buruz	Adibidez: baliaezintasuna, ezgaitasuna...

Desgaitasuna eta bere kontzeptuak



Aniztasun funtzionala duen pertsona: Funtzionatzeko moduari aipamena egin nahi dio. Modu ezberdinean aritzen den pertsona.

Desgaitasun (adimenekoa, zentzumekoa, fisikoa) egoeran dagoen pertsona: Pertsona bezala definitzen du eta nortasun ezberdindua ematen diona



Inklusioa: Denek gizarteko alor guztietan parte hartzea bermatzen du, baliabideak emanez desgaitasuneko egoerak gerta ez daitezten. Nahiago da "inklusioa" erabiltzea "integrazioa" baino.

Integrazioa: Gizarte honetan bizi diren pertsona guztiek parte hartzen duten prozesua. Gainera gizartearen adostasunak bi norabideetan egin behar dira.



Adimen-osasuna: Ongizate egoera non pertsona batek eguneroko estresari aurre egin diezaiokeen, lan bat garatu eta taldeari ekarpenak egin. Gizartearen funtzionamendu onera lotua dago.

Estigmatizatuta dagoen kontzeptua da, eta modu okerrean gaixotasunarekin lotzen dena.

Gaixotasun mentaleko diagnostikoa duen pertsona.

Gaixotasun mentala duen pertsona

Estigma: pertsona bat baldintza, ezaugarri, portaera bat edukitzeagatik, onartzen ez den edo menpeko ikusten den talde batean sartzen denean.



Autismoaren espektroko nahasmendua (AEN):

Adimeneko desgaitasun bat da.

Ez da gaixotasuna, errealitatea ulertzeko modu ezberdina baizik.

Pertsona batzuei eta besteei oso modu ezberdinean eragiten du. Espektroa oso zabala da.

Hartutako kalte zerebrala (HKZ) duen pertsona: L Bat-batean agertzen den garuneko kaltea, ez da **endekapenezkoa** eta garrantzi handiago edo gutxiagorekin alor fisiko, emozional, kognitiboan, etab. eragiten du.

Endekapenezko

gaixotasuna: zeluletan aldaketak ematen direna eta denboran zehar prozesu bat jarraitzen duena.



Pertsona gorra: Entzumenezko zentzua erabili ezin duena edo zailtasunak dituen, entzumenezko gaitasuna galtzeagatik.

~~Gor-mutua~~

Gorrek diren pertsonak ez dira mutuak.

Mututasuna ez dago zuzenean gortasunera lotuta.

Zeinu-hizkuntza: Hizkuntza naturala mota bisuala, espaziala, keinu bidezkoa eta eskuzkoa, ezaugarri historiko, kultural eta sozialen arabera sortzen dena...

~~Zeinu hizkera~~

Zeinu-hizkuntza

Zeinu-hizkuntzako interpretea: Zeinu-hizkuntza eta ahozko hizkuntza ezagutzen dituen profesionala eta bien artean komunikatzeko zubi lana egiten duena.

~~Zeinuen itzultzailea~~

Zeinu-hizkuntzen interpretea



Pertsona itsua: us-eremuan 10 gradu baino gutxiago dituen pertsona edo ikusmen-zorroztasunean 0.1 baino gutxiago.

Gradu ezberdinetan ikusmen desgaitasuna duen pertsona:

Legezko, guztizko itsutasuna duen pertsona edo ikusmen-eremu baxuko pertsona (ikus-eremuan 20 gradu baino gutxiago edo ikusmen-zorroztasunean 0.3 baino gutxiago).

Ikusmen murriztua duen pertsona: Ikusmen desgaitasuna duena, itsua ez dena baina ondo ikusteko arazoak dituena.



Mixed ability: Toinarriko kirolaren praktikarekin eta pertsona askok parte-hartzeko jasaten dituzten oztupoekin (trebetasun, adin, genero, autoestimua, esperientzia... diferentziengatik) zerikusia duena.

Ikuspegi berria eta pertsona erdian jartzen duena da, kirol eremu eta inguru seguru, eroso eta inklusiboak sortzea lortzen duena.

Hau trebetasun eta esperientziak partekatzen dituzten pertsonen bitartez baliabide hezitzaile **interaktibo**en eta irisgarrien bidez egiten da.

Mixed ability: Hitz ingelesa. Nahastu eta trebetasunetik dator.

Interaktibo: pertsona eta ordenagailu baten arteko informazioaren trukaketa baimentzen duena, hitz egiten ariko balira bezala.

